

BATASUNAREN BIDEAN

ikastôlak
herriari

EUSKARA BATUARI GORAZARREA

ANTOLATZAILEAK



ikastolenelkartea



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

SUSTATZAILEA



BABESLEAK

LAGUNTZAILEAK




ERRETERIA
ETA DONOSTIA
LOTUKO DITUEN
GIZA KATEA

MARTXOAK 24
11:00ETAN

SARRERA

IKASTOLAK HERRIARI Euskal Herrian antolatzen diren Ikastolen aldeko 5 jaien marka da. IKASTOLAK HERRIARI marka horren pean antolatzen da BATASUNAREN BIDEAN ekimena. Orereta ikastolak sustatuta, ekimenak gainerako lurraldeetako babesa jaso du eta horregatik Euskal Herri mailako ekimen modura planteatzen da. Ikastolen bost jaiak antolatzaileak dira, beraz, eta ikastolez gain, Euskal Herriko gainerako eragile sozio-kulturalak ekimen honetan parte hartzeko ahalegina egingo da. IKASTOLAK HERRIRI ekimenaren baitan dagoen filosofia eta planteamendua Euskal Herriko herritar zein eragileekin bat egitea baita. Bost jaien bitartez, beraz, Euskal Herri osoari ekimen honetan partehartzera deitzen dugu.



EGITARAUA

- **10:45ean**, Giza kateari hasiera emateko, ekitaldi xume bat antolatuko da Lehendakari Agirre plazan, Erreterian.
- **11:00-11:30**: Giza katea osatuko dugu.
- **11:30-12:00**: 5 bilguneetarantz mugituko dira parte-hartzaileak.
- **12:00-12:30**: Giza kateko bidearen 5 guneetan ekitalditxoak antolatuko dira (Erreterian -Lehendakari Agirre Plazan-, Pasaian, Herreran, eta Zurriola ikastolan eta Donostian (Plaza Berria).